

Fábrica de Tejidos,
Mahones azules y Estampados
DE
SORRINOS DE H. MUGUERZA
VERGARA




Industria-iraultza eta ehun-lantegiak Bergaran





**Bergarako
Udala**




Izenburua: Industri iraultza eta ehun lantegiak Bergaran. Emakume eta nesken eginkizuna ehungintzan

Argitaraldia: 2020ko martxoa

Argitaratzaileak: Bergarako udala

Eqilea: Daiteke Gizarte Aholkularitza

Diseinua: Daiteke Gizarte Aholkularitza



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

Emakume eta nesken eginkizuna ehungintzan

1903ko martxoaren 28an Gipuzkoako Probintzia Aldundiak Bergarako Udalari **beherago duzuen gutuna bidali zion**. Gutun honetan Bergarako lantegien inguruko informazioa eskatuko die, zehazki herrian lanean diharduten haur eta emakumeen kopurua. Bergarako Udalak datuak bildu eta beherago duzuen taulan jaso egin zituen.

1903ko martxoaren 28an

Gipuzkoako Diputazio Probintzialak, martxoko 18ko bilkuran, Batzorde Probintzialari agindu zion Gipuzkoako industrian lan egiten duten emakumezko langileen kopuruaren estatistika bat egitea, adinaren arabera sailkatuta. Lurraldeko haurren heriotza-tasa izugarri handia denez, estatistika honekin errealitatea ezagutu nahi da.

Emakume langilea, bi sexuetatik ahulena denez, babestu egin behar da; fabrikari egiten duen lanak makaldu egiten^o baitu, eta honek eragina izango du bere funtzio naturalean. Guzti hau gainera arrazaren gain behera ekarriko dezake. Horregatik, amatasuna behar-beharrezkoa da milaka gizaki salbatzeko eta zaintzeko.

Haurren hilkortasunaren aurkako borroka patriotiko eta humanitarioa nonahi agertzen da, denon betebeharrak sakratua baita. Jaioberrien hilkortasunarekin bukatu behar dugu eta, bereziki, haur pobreen hilkortasunarekin, horiek baitira gaitz ikaragarri hau gehien pairatzen dutenak.

Gauzak horrela, Gipuzkoako Diputazio Probintzialak ondo egindako estatistika egingo du eta horretarako zure udalerriko lantegien zerrenda zehatza bidali beharko duzue, bertan lan egiten duten emakume eta haurren kopurua zehatzuz, baita garrantzitsua izan daitekeen edonolako informazioa eranstea erabakigarria izango da etorkizuneko kalkulu guztien oinarrietarako.

Jainkoak gorde zaitzala urte askoan.


Lehendakariordea

Tomas Balbas



DOKUMENTU ORIGINALA:

http://www.bergara.koartxiboa.eus/recursos/didaktika/Industria-irawltza/BVA_01_0108_033x.pdf



Emakume eta nesken eginkizuna ehungintzan

1903ko martxoaren 28an	Langileen adina									
	16 urte baino gutxiago			16 urtetik 50 urtera			50 urtetik aurrera			GUZTIA OROKORRA
	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	Gizonak	Emakumeak	Guztira	
1 Algodonera de San Antonio	36	47	83	88	110	198	32	6	38	319
2 Vergara Jauregui, Resusta y Cia	13	--	13	107	1	108	3	---	3	124
3 Gregorio Fernández y sobrino	8	8	16	27	32	59	3	2	5	80
4 Juan Ortueta y Cia	3	---	3	27	6	33	1	---	1	37
5 Hilaria Muguerza	2	---	2	10	---	10	3	---	3	15
6 Viuda de Aguirre e hijo	---	---	---	8	---	8	1	---	1	9
7 Viuda de Aranes	2		2	6	3	9	---	---	---	11
8 Lasagabaster e hijos	---	---	---	10	---	10	2	---	2	12
9 Juan Garay	10	---	10	---	---	---	---	---	---	10
GUZTIA OROKORRA	74	55	129	283	152	435	45	8	53	617

Zuen lana dokumentuak aztertu ostean galdera hauei erantzutea izango da:

- Zein izango da "emakumearen funtzio naturala" ?
- Zer iruditzen zaizu "bi sexuetatik ahulena" dela dion esaldiak?
- Ohikoak izango ziren 1903an horrelako pentsamenduak?
- Zer lantegietan daude emakume gehienak?
- Zer motatako enpresak direla uste duzu?


Gaur egun zenbat urterekin hasi daiteke 16 urte baino gutxiago duen norbaitek lanean?



Emakumeen aztarnak:

"Ehun lantegietan lanean" bideoa ikusi eta datozen galderak binaka erantzun:

(Bideoa unitatean dago)



- Zure inguruko norbaitek herriko ehungintza enpresaren batean egiten zuen lan?
- Zeintzuk dira Maria Pilar Larrañagak (1926) aipatzen dituen ehun lantegiak? Ezagutzen zenituen? Algodonera, Narvaiza, Movilla, Oregui, Otazua, Aranzabal, Lasagabaster, Idarreta.
- Nola ikusten zen garai hartako jendartean emakumeak fabriketan lan egitea? Uste duzu pentsamendu hori, gaur egungo jendartean eraginik izan duela?
- Zeintzuk ziren fabrika horietako lan ezberdinak? Bilatu garaiko dokumentazioan: www.bergarakoartxiboa.eus

XX. mende hasierako lan legeak





Esan bezala, haatik, emakume askok lan egiten zuten industrian, Algodonera fabriketan bereziki. Lege askok, izaera orokorrekoak zein zehatzekoek, zenbait alderdi finkatzera jo zuten: emakumeei zegozkien ekoizpen adarrak, horietan hartu zitzaizkien lanpostuak, bete beharreko lanaldiak, etab. Hori dela eta, emakume langileei zegozkien lehenengo legeak ikuspegi guztiz babeslea bultzatzen zuten langile horien amatasunaren defentsari dagokionez. Arautu ziren kontuak honakoak izan ziren: erditzearen aurreko eta ondoko atsedendia, edoskitzeko orduak, amatasun aseguruaren ezarpena, etabar.

Haurren lanak

Binaka, lantegietan diharduten langile adingabeen xehetasunak informe batean bildu beharko duzue, eta horretarako garai horretako datuak erabiliko dituzu:

<https://bit.ly/2KFhQJz>



LANTEGIETAN DIHARDUTEN LANGILE ADINGABEEN XEHETASUNAK

Lantegien zerrenda	Haurren kopurua; sexuaren arabera banatuta
Lan egindako orduen kopurua	Ikasketak
Egindako lanak	Soldata

